

Nor da nor *Lur Hiztegi Entziklopedikoan*? Euskarazko lehenengo entziklopediaren demografia digital alderatua

Galder Gonzalez Larrañaga* eta Olatz Perez-de-Viñaspre**

*Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea (UPV/EHU), Filosofia Saila

**Informatika Fakultatea, Konputagailuen Arkitektura eta Teknologia Saila (UPV/EHU)

1991n argitaratu zen *Lur Hiztegi Entziklopedikoaren* helburua euskararen diglossiarekin amaitzea zen, euskarazko entziklopedia orokor eta unibertsal bat eskainiz. Entziklopedia batek helburu unibertsala izateak zer esan nahi duen aztertu dugu, eta helburu hori bete duen edo ez ikertu dugu. OpenRefine eta Wikidata erabiliz, *Lur Hiztegi Entziklopedikoan* agertzen diren biografia guztiak aztertu eta parekatu ditugu. Horrela, demografia digital bat egiteko aukera izan dugu. Unibertsaltasun-helburu hori bete den edo ez jakiteko, beste entziklopedia orokor batzuekin alderatu ditugu biografia horiek. Emaizak erakusten du euskarazko lan hau, xumeagoa izanda ere, Europako gainontzeko entziklopedien pare zegoela.

GAKO-HITZAK: Entziklopedia · Unibertsaltasuna · Demografia · Wikidata · Humanitate digitalak.

Who is who in the Lur Encyclopedic Dictionary? Comparative digital demography of the first encyclopedia in Basque.

The objective of the Encyclopedic Dictionary Lur, published in 1991, was to end the Basque diglossia, offering a general and universal encyclopedia in Basque. We've looked at what it means for an encyclopedia to have a universal goal and whether or not it's met. Using OpenRefine and Wikidata, we have analyzed and paired all the biographies that appear in the Encyclopedic Dictionary Lur. This has allowed us to do a digital demography. To see if this goal of universality has been achieved, we have compared these biographies with other general encyclopedias. The result shows that this work in Basque, although simpler, was similar to the rest of European encyclopedias.

KEY WORDS: Encyclopedia · Universality · Demography · Wikidata · Digital humanities

1. Sarrera

Zazpi atedun Tebas hura, nork eraiki zuen? galdera idatzi zuen Bertolt Brechtek eta kantatu Mikel Laboak «*Langile baten galderak liburu baten aurrean*» euskarazko bertsio ezagunean. «*Liburuetan errege izenik baizik ez da ageri*» jarraitzen zuen (Brecht, 1939). Ezaguna da entziklopediek arazo berbera izan ohi dutela: langileen biografiak baino, handikienak ohikoagoak dira, ekidinezina dirudien ohitura bat (Konieczny & Klein, 2018). Arazo hau 1757ko *Encyclopédien* jada hausnartu zuen Diderotek, eta soluzio erradikal bat erabili zuten: artikulua alfabetikoki aurkeztuko zituzten, eta ez gaiaren arabera (errege eta leinuei lehentasuna eman ohi ziena), eta biografiei uko egin zieten, handikien bizitzan baino gehiago, kontzeptuetan zentratu ahal izateko (Etxebeste Aduriz, 2014). Ez da ohikoena, hala ere. Entziklopedia gehienetan Mendebaldearen zein gizonezkoen errepresentazioa nabarmen handiagoa da, baita ere haien helburua unibertsalista izan arren (Reagle & Rhue, 2011; Graham & Sengupta, 2017). Emakumeak agertu direnean, haien papera gizonezkoen osagarri eta gaitasun gutxiko gisa irudikatu da (Thomas, 1992).

Wikipediaren sorrerak, eta bereziki azken hamarkadan egin diren esfortzuek, emakumeen eta alboetan geratu direnen errepresentazioa hobetu dute (Reagle & Rhue, 2011; Konieczny & Klein, 2018; Causevic et al., 2020), nahiz eta editore gehienak gizonezkoak izan (Lam et al., 2011). Hala ere, 2022aren hasieran Wikimedia proiektu guztietan eskaintzen diren biografia guztien artean, % 18,22 dira emakumezkoak (Humaniki, 2021). Era berean, Lehen Mundutik errepresentatu da ere orain arte kanpoan geratu diren ezagutza horiek, askotan definitzen ari denaren izaera bera eraldatuz (Luyt, 2018). Hamar Wikipedia nagusiek bereziki euren hizkuntza-esparruari buruzko edukia eskaintzen dute besteena baino hobeto (Miquel-Ribé & Laniado, 2020). Paradoxa nabarmena da: ezagutzaren marjinetan geratu direnek zailtasun gehiago dituzte euren ezagutza erdigunera eramateko, baina,aldi berean, euren errealitateari buruzko errepresentazioa behar dute hori aldatu ahal izateko. Horrela, hizkuntza nagusietan norberaren hizkuntzan baino artikulua eta eduki gehiago egon daitezke norberaren geografiari zein kulturari buruz, baina kanpoko beste batek idatzia (Dittus & Graham, 2019). Kulturen arteko gatazkek eta kultura horiek duten ikuspuntu politiko hegemonikoak ere eragina izango du ezagutzaren finkatze horretan.

Errepresentazio kolonialaren inguruan ere eztabaida sutuak izan dira entziklopedismoan, bereziki Wikipedia bezalako proiektu transnazionalen sorrerarekin. Horren adibide dira Ford eta Graham-en (2020; ikus ere, Graham & Dittus, 2022) Jerusalemen errepresentazio digitalaren inguruko ikerketa edo Ganges ibaiaren izenaren ingurukoa, hamarkada batez ingelesezko Wikipedian eman zen eztabaida oinarri (Kumar, 2017), oraindik ere itxi gabe dagoena (Wikipedia editors, 2022). Eztabaida hauen muinari «unibertsalismo eurozentrikoa» deitu dio Kumarrek (2017).

Entziklopedia digitaletan, beraz, entziklopedia idatziek zituzten isuri batzuk errepikatzen jarraitu dute, errepresentazioari, helburuei eta ustezko unibertsaltasun-printzipioari dagokienez, bederen. Esparru horiek gudu-zelai bilakatu dira, kanpoan geratu direnek ere nahi dutelako unibertsaltasun horretan sartu, euren burua ordezkatu ikusi eta euren helburu politikoak ere ezagutzaren (hau da, boterearen)

baitan kokatuz. Gailu elektronikoek erantzun neutrala ematen dutenez, bereziki ezagutza datu-baseak erabiltzerakoan (Ford eta Graham, 2020), neutrala izatea, unibertsala izatea, da gatazka-gunea. Entziklopedia idatziek, hala ere, bazuten eztabaida hau, hautu editorialen bidez ebazten zena. Entziklopedia idatziak inprimatu behar direnez, hau da, aldaezinak direnez gero, eragina dute gai bati buruz irakurleak jakin behar duena zehazteko garaian.

Inprimatu behar izateak barruan zer dagoen eta kanpoan zer geratzen den mugatzen du. Entziklopedia idatzietan, irakurle publiko objektiboa mugatuagoa izaten da, Wikipediako hainbat hizkuntza-ediziotan gertatzen den bezala. Adibide gisa, japonierazko Wikipediaren bisiten eta edizioen % 96 Japoniatik datoz eta ingelesezko bisiten % 42 eta edizioen % 39 Ameriketako Estatu Batuetatik (Mamadouh, 2019: 3.812). Baina, mundu digitalaren iraultzaren aurretik, entziklopedia idatziek merkatu zehatz bat zuten helburu, eta unibertsaltasun-promesak egin arren, merkatu horren beharrak asebate behar zituzten. Entziklopedia gehienegileak entziklopedia inprimatuko zen hizkuntzaren hiztunak ziren, eta hizkuntza-komunitate horren beharrei erantzutea logikoena da. Horrek mundu-ikuskerara bat ere zehazten du, entziklopedia baten autoritate eta boterea indartu behar bada, bederen, zer esan daitekeen eta zer ez mugatzen du, zer den arrazoizko eta zer zentzugabeko, zer egia eta zer gezurra, «egiari buruzko diskurtsoen ekonomia» baten barruan (Foucault, 1980).

Entziklopedia egiterakoan, beraz, editorearen helburuari gehitu behar zaio irakurlearen interesa. Modu orokorrean, entziklopedia bakoitzak helburu bat izan dezake. Horrela, entziklopedia orokor gehienek asmo unibertsala dutela ematen du, baina nabarmenak dira helburu naziogilea dutenak ere. Gainera, perspektiba bat eskaintzeko helburua dutenak ere badira, *The Catholic Encyclopedia*, «Katolikoen interes, ekintza eta doktrina osoen informazio autoritatiboa duena», edo *Bol'shaia sovetskaia entsiklopediia*, munduaren perspektiba marxista-leninista bat proposatzen duena (Lynch, 2016). Entziklopedia espezializatu ugari aurki daitezke merkatuan, gai zehatz bat hartu eta publiko murrizari begira egindakoak. Eta badira, azkenik bitxikeriak biltzeko helburua dutenak, historikoki paradoxografia eta bestiarioak izan direnak bezala; horren adibide izango litzateke *Guinness World Records* liburua. *Lur Hiztegi Entziklopedikoa* aztertzeke lehenengo biak azaltzeari garrantzitsu deritzogu, helburu unibertsala edo naziogilea ote duen erabaki ahal izateko eta, proposatzen dugun azterketaren bidez, helburu hori bete ote duen azertu.

1.1. Helburu unibertsala duten entziklopediak

Entziklopedia gehienegilearen helburu deklaratu ezagutza guztia bildu, sistematizatu eta irakurleari eskaintzea da. Helburu unibertsalista hori duten entziklopediei Umberto Eco Entziklopedia Ertain izena ematen die (2007: 84), ezerein Entziklopedia ezingo baita inoiz *literalki* unibertsala izan, horretarako munduko ezagutza guztia benetan bildu beharko duelako. Entziklopediak irakurleentzat ulergarria den ikuspuntu bat eman behar du, hizkuntzak, kulturak eta nazioak zizelkatu duten bilduma bat egitera eramango duena. Entziklopedia idatziaren muga inprentan eta berau idatzi behar dutenen soldatan dagoenez, erabaki editorialek entziklopedia ahalik eta konpaktuenak hobesten dituzte (Loveland, 2012). Unibertsaltasun-helburu idealari beste helburu praktikoa eta ekonomikoa bat ere gainjarri beharko zaio.

Ecoren hitzetan, «errepresentazio entziklopediko bat ez da inoiz globala, beti da lokala, eta testuinguru eta gertakari zehatzen arabera sortzen da» (Eco, 2007: 62). Ikuspuntu horren arabera, entziklopedia unibertsal guztiak beren mundu-ikuskerarekiko tematiko edo espezializatu izango lirateke. Eztabaidarako eta ebaluaziorako uzten da, beraz, helburu unibertsala duten bi entziklopedien artean zein den unibertsalagoa erabakitzea. Lan honen helbururako, Ecori jarraituz, edozein Entziklopedia Ertain —bere kulturaren baitan unibertsala zer den gorabehera— tematikoa dela iritzita, entziklopedia unibertsala den edo ez baino gehiago, egileen helburua unibertsala den edo ez begiratuko dugu. *Encyclopaedia Britannica* helburu unibertsalaren paradigma izango litzateke, nahiz eta bere edukian britainiar unibertsoaren kontzeptua jaso unibertsal horren sinonimotzat.


Azal dezagun *Encyclopaedia Britannica*ren unibertsaltasun-asmoa metafora baten bidez. Entziklopediaren editoreek ikuspegi bat idealizatzen dute, *gehien-dakien-ingelesa* deituko duguna. *Gehien-dakien-ingelesak* ez du mundua bere etxetik ikusten, baizik eta goitik behera, nolabaiteko Arkimedesen puntu batetik. Berak esango dizu zer den funtsezko, berak ikusten baitu ezagutu behar duzun guztia. Gehien-dakien-ingelesa ez da pertsona zehatz bat: trukagarria da. Har genezake beste pertsona bat, leku berean jarri, eta bera izango da gehien-dakien-ingeles berria. Subjektu ideal bat irudikatzen du, unibertso osoa begiratu eta plasmatzeko gaitasuna duena. Thomas Nagelek (1989) «inondiko ikuspegia» (*the view from nowhere*) izena eman dio pentsamendu honi. Itzuliko gara beranduago proposamen honen inplikazioetara.

1.2. Helburu naziogilea duten entziklopediak

Ecoren sailkapenari jarraituz, entziklopedia guztiak dira euren ikuspegi kulturekiko tematiko, baita helburu unibertsala dutenak ere. Hala ere, badira entziklopedia batzuk ez dutenak helburu unibertsalik, baizik eta helburu naziogilea. Ondo ikertutako adibide bat juduena da. 1901etik 1906ra bitartean *The Jewish Encyclopedia* argitaratu zen, herri judua deskribatzeko helburuarekin (Schwartz, 1991). 1908an *Evreiskaya entsiklopediia* argitaratu zen, errusieraz, helburu berberarekin (Trachtenberg, 2017). Weimarraren Errepublikan, 1930eko hamarkadaren bueltan, hainbat juduk ikusi zuten aukera yiddishezko entziklopedia unibertsal bat egiteko, hau da, eztabaidatu zuten entziklopediaren eta hizkuntzaren helburu naziogileari buruz. 1927-30 artean *Jüdisches Lexikon* argitaratu zen eta *Encyclopaedia Judaica* (1928-34 artean, baina inoiz amaitu ez zena) Alemaniako juduak euren kulturarekin bateratzeko helburua zutenak. Brennerren arabera (1998), bi entziklopedia horietako editoreen helburuak hiru ziren: «Lehenengo, juduen kultura eta komunitatearen altxorra berreskuratzea; bigarrena, Alemaniako *Wissenschaft des Judentums* munduko akademia juduaren baitan zuen nagusitasuna adieraztea; eta hirugarrena, alemana hitz egiten zuten juduen artean *judu-kontzientzia* modernoa sortzea, Judaismoaren edukiak birdefinituz» (kurtsibak gehitu ditugu). Euren argudiaketan, herri/hizkuntza batek entziklopedia unibertsal bat behar izatea, eta herri edo/eta kultura baten entziklopedia bat izatea ez dira gauza berbera. Hizkuntza batean entziklopedia unibertsal bat egiteak nazioa indartu dezake, baina haren helburua ez da naziogilea, unibertsala baizik. Gai honetan iritzi-aniztasuna zegoela eta, Yashunskyk proposatu

zuen edukia ez izatea jasoegia, baizik eta herritarrak heztekoa; eta erabaki editorialak zioen edukiaren herena juduen inguruan izango zela, baina Yashunskyk uste zuen % 15 baino gehiago gehiegi izango zela unibertsaltzat hartzeko eta, nahi izatekotan, tomo gehigarri bat egin zitekeela haien kulturako gaiak modu egokian lantzeko (Trachtenberg, 2017).

Nazio bateko biografiak biltzen dituen beste kasu paradigmatico bat *Magyar Életrajzi Lexikon* hungariarra da. 1967an hasita eta 1994an hedatua, hungariar kulturarekin harremana duten 20.000 pertsona baino gehiago jasotzen ditu. Haren helburua ez da ezagutza unibertsala, baizik eta hungariar nazioaren inguruko argipenak ematea. Pentsa genezake Hungarian jaiotako pertsonak jasotzen dituela, baina Wikidatan bilaketa bat eginda, ez da hori aurkitzen duguna¹.



1. irudia. Magyar Életrajzi Lexikon hungariarrean agertzen diren biografien jaioterria. Hungariar mugatik kanpo daudenak etnikoki hungariarrak diren pertsona esanguratsuak dira.

Mapak argi erakusten duenez, biografiak biltzen dituen lan entziklopediko honen helburua ez da mugatzen herrialdearen muga fisikoetara, haien herriaren, kulturaren eta nazioaren eraikuntzan sakontzen baitu, muga horietatik kanpo jaiotako hungariarrak ere agertuz.

Euskal Herrian ere paralelismoak egin ditzakegu aurreko bi adibide horiekin. *Enciclopedia general ilustrada del País Vasco*, Estornes Lasa anaiek sortu zuten 1958tik aurrera. Lan horren helburua Euskal Herriari buruzko entziklopedia bat egitea zen. Gaur egun sarean dago eskuragarri *Auñamendi Eusko Entziklopedia* izenarekin (Lasa Zuzuarregi, n.d.). Bertan jasotzen diren edukiak ez dira

1. Bilaketaren emaitza Wikidatan: <https://w.wiki/4qh8>

unibertsalak, ez dute bokazio hori. Euskaraz partzialki irakur daitekeen arren, haren helburua euskaldunei buruz hitz egitea da, haien historia, kultura eta geografiari buruz. Hurrengo hamarkadan iritsi zen *Gran Enciclopedia Navarra* lana, ikuspuntu berdinetik, Nafarroari heltzen diona (Euskarazko Wikipedia, 2020).

1.3. *Lur Entziklopediaren* helburuak

1991n hainbat proiektu entziklopediko martxan zeuden Euskal Herrian. Garai horretan emandako eztabaiden berri izateko, *Jakin* aldizkariaren 72. zenbakia irakur daiteke, lehian aurkeztutako argudioak ulertzeko. *Lur Hiztegi Entziklopedikoak* (LHE) 10 liburuki argitaratu zituen. Ondoren, *Lur Entziklopedia Tematikoa* eta beste hiru gaurkotze-liburuki etorri ziren. Haren helburua, hala ere, lehen liburukian Jean Haritzelharrek egindako hitzaurrean zein hiru zuzentzaileek (Ibon Sarasola, Pello Salaburu eta Henrike Knörr) egindako azalpenean azaltzen da argien.

[Etorri dira] legeak, autonomia lehenik, euskararen normalizatzarako legea gero, euskara hizkuntza ofiziala izanez balia daitekeela edozein tokitan, etxean, eskolan, biltzarretan, kaseta, irrati, telebixtetan, administrazioaren aurrean. (...) Hezkuntza euskaraz ikasletoetan, eskola publiko eta pribatuetoan, D edo B ereduetoan, Unibertsitateetan ere, parte bat bederen, hainbat ikasleentzat behar ziren eskolako liburuak sortu eta idatzi. (...) Euskal Herria eta euskaldun umeen eskubide nagusia delarik oraiko jakituriaren jabe izaita. Hortik sortu da Entziklopedia baten ideia. Herri gehienek beren Entziklopedia badaukate eta dudarik gabe beren hizkuntzan. Egoki eta zuzen da beraz Euskal Herriak ukan dezan berea, euskaraz idatzia noski (Haritschelhar, 1991).

Interesgarria da Haritzelharren hitzaurreak hirurogei urte lehenago Dubnowek haien entziklopedia indartzeko egindako txostenarekin duen erresonantzia:

Izan ere, gure begien aurrean gure *mame-loshn* [ama-hizkuntza] hizkuntza kultural errefinatu batean bilakatu da. (...) Orain berrogei urte ez zegoen gure artean [yiddish hiztunak] eskola modernorik — eta gaur egun gure hezkuntza instituzio modernoak bi mila baino gehiago dira, berrehun mila ikasle ingururekin. Hori baino garrantzitsuagoa da [...] belaunaldi berri batek euren kultura yiddishez adierazten duela; belaunaldi batek Yiddishez jaso du bere hezkuntza. Eurentzat, yiddish kultura bizitzaren atal beharrezkoa da — ez luxu sinplea. Kontingentzia handi honetan erabiltzeko eta yiddish kultura modernoak erabili ahal izateko, entziklopedia orokor bat oinarritzeko behar bat da (Tsentral-komitet fun Dubnov-Fond, 1931: 3; ingelesezko itzulpenetik egileek itzulia: Trachtenberg, 2017: 202).

Beraz, LHEren helburua euskararen normalizazioan ezarri zuten egileek, koordinatzaile izan zen Zabaletak (1991, 1992) eta zuzentzaileek (Knörr et al., 1991) aipatzen duten bezala. Zabaletak (1991) atal bat eskaintzen dio gaien aukeraketa eta trataerari, baina atal horretan euskaraz orain arte erabili ez diren hitzak nola erabili baino ez du aipatzen. Hau da, hautuen inguruko argibiderik ez du ematen, entziklopediak eduki unibertsala izango duela jakintzat emanez, *gehien-dakien-euskaldun* ideal batek idatzi izan balu bezala.

Egin dugun banaketaren arabera, beraz, LHEren esparrua helburu unibertsaleko entziklopediana izango litzateke, euskaraz kontsulta orokorra egiteko sortua, gainontzeko hizkuntzek dutenaren antzera. Eta, argudiatu badaiteke ere euskarazko

edukiak sortzea ere naziogilea dela, egileek ez dute inongo unetan aipatzen euskaldunei buruzko entziklopedia bat egiten dutenik, baizik eta euskararentzako lana dela. Bestetik, ez dute euren proposamenean bestelako perspektibarik bultzatzen: ez dute herritarren, iritzi baten edo ideologia baten apologia egiten. Edukiz unibertsala dela proposatu nahi dute, eta hizkuntza-diglosiarekin maila akademiko guztietan amaitzeko erronkaren parte dela aldarrikatzen dute.

Gaur egun *Lur Hiztegi Entziklopedikoa* eskuragarri dago sarean, *cc-by-sa* lizenziarekin, 61.322 sarrerarekin. 2011n Eusko Jaurlaritzak dirulaguntza eskaini zuen edukia Wikipediara igotzeko, eta Elhuyar Fundazioak horietatik 11.000 aukeratu eta igo zituen (Irekia, 2011). Hurrengo urtean Wikimedia Fundazioak Wikidata proiektua abiatu zuen, datu-base ireki bidez edukiak lotzeko proiektu irekia (Vrandečić, 2012). Lan honetan bi tresna horiek erabiliko ditugu.

2. Helburua

Lan honen helburua, beraz, LHEk ezarritako nahia (euskaraz entziklopedia unibertsal bat izatea) bete den edo ez zehaztea da.

Wikidataren sorrerak aukera ematen du, datu-baseen arteko loturari esker, orain hamarkada bat oso konplexuak ziren ikerketak egiteko. LHE sarean egoteak aukera ematen du edukiak parekatu eta analisi sakona egiteko. Lan honetan LHEn agertzen diren biografiak Wikidatarekin parekatuko ditugu, azterketa demografikoa egin ahal izateko. Guk dakigula, hau orain arte egin gabeko azterketa izan da, eta edonola ere, Wikidatarekin parekatzea egin gabeko lana da.

Azterketa horren bidez, jakin daiteke zer-nolako biografiak dauden, ea helburu unibertsala duten beste entziklopedia batzuen antzeko edukiak dituen eta zein den haren eduki lokalaren ehunekoa. Gainera, unibertsaltasun horretan aurretik aipatu ditugun hainbat isuri ere iker daitezke, bereziki emakumezkoen errepresentazioa eta europar kulturatik kanpoko biografiek duten espazioa. Demografia digital honen anbizioa edukien azterketarako bide bat irekitzea da, beraz.

3. Metodologia

3.1. *Lur Entziklopediaren* edukia atzitzea eta sailkatzea

Lur Entziklopediaren edukia publikoki atzigarri dago bai jatorrizko fitxategiak Open Data Euskadi plataformatik deskargatuz², baita Eusko Jaurlaritzaren webgunea kontsultatuz ere³. Hala ere, edozein metodo erabilita, ez dago entziklopedia osotasunean atzigarri, fitxategi edo orri batzuk falta dira eta.

Hori dela eta, bi baliabideak konbinatu ditugu jarraian azalduko den moduan ahalik eta sarrera gehien erauzteko asmoz. Gure hurbilpen honetan, webguneko kontsulta-baliabidea oinarri hartuta, deskargatutako fitxategiekin osagarritu dugu informazioa. Horretarako, bi urrats nagusitan banatu dugu prozesua:

2. Deskargaren helbidea: <https://opendata.euskadi.eus/catalogo/-/lur-hiztegi-entziklopedikoa/>

3. Online kontsultagunea: <https://www.euskadi.eus/lur-hiztegi-entziklopedikoa/web01-a2lurhiz/eu/>

1. Webgunetik sarrera guztien estekak erauzi: *Lur Hiztegi Entziklopedikoaren* kontsulta-orri guztiek esteka-oinarri berdina dutela kontuan hartuta⁴, entziklopediako sarrerak «karpetaka» antolatuta daudela ikusi ahal izan dugu (deskargatutako edukia bezala). Karpeta horiek modu automatikoan aztertzeko aukera ustiatuta, *script* bat garatu dugu web orrietatik informazioa erauzten duena. Karpeta horien web orrietatik, sarrerak eta sarrera horien web orrien estekak erauzi ahal izan ditugu. Erauzketa horren ondorioz, 62.683 sarrera eta haien estekak lortu ditugu.
2. Esteka bakoitzetik sarrera bera eta horren edukia erauzi: aurreko urratsean lortutako esteketatik abiatuta, esteken edukia aztertu dugu bertatik informazio esanguratsua ateratzeko asmoz. Entziklopedia bat izanik, pertsona izen ugari daude bertan, eta sarrera horiek modu automatikoan identifikatzeko hurrengo urratsak eman ditugu:
 - Sarreraren izenen formatua normalizatu dugu ponte-izena abizenen aurretik ager dadin. Pertsona-izen askotan, abizenaren arabera ordenatuta daudenez, ponte-izena sarreraren amaieran agertzen da komaz bereizita. Adibidez, 'Gorricho Bilbao, Francisco' sarrera 'Francisco Gorricho Bilbao' gisa utzi dugu.
 - Edukia aztertuta, pertsona ote den identifikatu dugu. Horretarako, deskribapenean jaiotza urtea eta tokia parentesi artean zehaztuta ote dituen begiratu dugu adierazpen erregularren bidez. 'Sani Abacha' sarreraren adibidez, bere deskribapenaren lehenengo esaldian honakoa esaten du: «Nigeriar politikaria (Kano, 1943 - Abuja, 1998)». Esaldi horretatik, parentesi artean toki-izenak eta urteak daudenez, pertsona bat dela ondorioztatu dugu modu automatikoan.
 - Amaitzeko, anbiguoak diren sarrerak (izen berdina izanda, pertsona bat baino gehiago direnean) desanbiguatzen laguntzeko, jaiotza-eta heriotza-urteak (izatekotan) erauzi ditugu modu automatikoan adierazpen erregularren bidez. Pertsonen kasuan jaiotza- eta heriotza-urteak badira ere, gainerako entitateen kasuan hasierako eta amaierako data adieraziko dute.

Prozesu honen ondorioz, 62.653 sarrera erauzi dira, zeinetatik modu automatikoan 12.335 pertsona-izen gisa sailkatu diren (akatsak barne).

3.2. Errekonziliazioa OpenRefine erabiliz

OpenRefine datu nahasiak ordenatu eta beste datu-base batekin erkatzeko (errekonziliazioa deitzen den prozesua) aukera ematen duen software librea da. Wikidatarekin lan egiteko bereziki diseinatua dago. OpenRefine erabili dugu, beraz, LHETik erauzitako informazioa Wikidatarekin errekonziliatzeko. Inongo manipulaziorik gabeko fitxategian 12.335 pertsona identifikatu dira, baina horietako asko izen propioak izanagatik, ez dira pertsonak (leku-izenak ere pertsona gisa

4. Sarrera bakoitzak duen helbide-eredua: <https://www.euskadi.eus/web01-a2lurhiz/eu/contenidos/termino/>

identifikatu ditu programak); era berean, beste 416 kategoria daude *Lur Hiztegi Entziklopedikoan*, sarrera bakoitzaren ondoan adierazten dena.

Lehen errekonziliazioa pertsona gisa identifikatuta agertzen zirenekin egin dugu, eta automatikoki 7.047 sarrera parekatu dira. Emaiza hori hobetu nahian, bigarren saiakera bat egin dugu, jaiotza- eta heriotza-urtea sartuta *Lur Hiztegi Entziklopedikoko* definiziotik. Horrela, aurrekoak kontuan izanda, 7.956 pertsona zuzenean lotzea lortu dugu. Gainontzeko sarrerek eskuz lotu dira, OpenRefinek eskaintzen dituen aukerak baliatuta, eta Wikidatan existitzen ez direnekin sarrera berriak eratu dira. Guztira 3.420 sarrera gehiago aztertu dira prozedura honen bidez. Ariketa honetako arazo nagusia izen berbera duten pertsonen arteko argipena ematea izan da, baina LHEK abizen eta izen asko oker idatzita dituela ere ondorioztatu dugu. Kasu batzuetan izen horiek transliterazio zaharrak dira (nabarmen arabierazko eta txinerazko izenekin, arauak aldatu baitira) eta, beste batzuetan, akats tipografikoak. Horietako bakoitza eskuz lotu behar izan da, bilaketa bat eginez, pertsona horren izen egokia topatzeko asmoz.

Lan hau amaituta, pertsona-kategoria ez zuten bestelako berezko izenen bilaketa eskuz egin da, baita letra bakoitzean egon zitezkeen sarrera anitzeko pertsonak ere (batez ere, izen berbera duten erregeak eta aita santuak). Era berean, izena hizkuntzen artean aldatzen diren santuak ere eskuz parekatu dira. Eskuzko gainbegirada honetan beste 1.693 pertsona aurkitu dira, eta horiek aurreko prozedurarekin errekonziliatu dira berriro ere Wikidatarekin.

3.3. Wikidatara datuak igotzea

Behin OpenRefinerekin errekonziliazioa eginda, datu hauek Wikidata igotzeko prozesua hasi genuen. Prozesu hori egiteko bide bat baino gehiago egon daitezke, baina egokiena *Lur Hiztegi Entziklopedikoaren*tzako autoritate-kontrol ID bat eskatzea zela hobetsi genuen. Horrela, beste entziklopedia batzuen pare jartzeaz gain, Wikipedian dauden artikuluetan kanpo-esteka gisa LHErako lotura ere agertuko litzateke, euskarazko produkzioen elkarren lotura hobetuz. Sistema berbera erabiltzen da jada *Auñamendi Entziklopediarekin*, adibidez. Propietate horren eskaera Wikidatako *Property Proposal* gunean egin zen⁵, helburua azalduz eta egin beharreko lanaren aurreikuspena zein zen adieraziz⁶. Eztabaidaren ostean, P10242 propietatea esleitu zitzaion *Lur Hiztegi Entziklopedikoari*⁷.

Wikidatara datuak igotzeko QuickStatements tresna erabili da⁸ jada Wikidatan existitzen ziren itemetarako. OpenRefine erabili da berriak diren pertsonetarako (61)⁹, hau da, Wikidatan zein Wikipedian ez zeudenetarako, eskema simple batekin:

5. Wikidatan propietate bat eskatzeko jarraitu beharreko prozedura hemen azaltzen da: https://www.wikidata.org/wiki/Wikidata:Property_proposal

6. Propietatearen eskaera eta bozketa hemen ikus daiteke: https://www.wikidata.org/wiki/Wikidata:Property_proposal/Lur_Encyclopedia_ID

7. Propietatearen inguruko datuak ikusteko: <https://www.wikidata.org/wiki/Property:P10242>

8. QuickStatements datuak Wikidatara azkar igotzeko sistema bat da. Helbide honetan erabil daiteke: <https://quickstatements.toolforge.org/>

9. *Lur Hiztegi Entziklopedikoan* bada sarrera bat ezin izan duguna inon ere aurkitu. Hans Sermatt izeneko poeta surrealista da. Erregistro askotan begiratu eta gero, litekeena da pertsona hau asmatutakoa izatea eta, beraz, ez dugu Wikidatan erregistro berririk sortu.

gizakia, sexua edo generoa, jaiotza-urtea, ogibidea eta LHEn duen sarrera zein den. Sexua edo generoa izenaren arabera esleitu da, jaiotza-urtea sarreratik eskuratu da, posible zen kasuetan eta ogibidea eskuz bete da, LHEko sarrera irakurrita.

Behin datuak igota, bikoizketak eta balizko akatsak bilatu dira, Wikidatak eskaintzen dituen tresnak baliatuta. LHEn hainbat pertsona behin baino gehiago agertzen direla ere ikusi da eta, horregatik, salbuespenak gehitu dira datu bikoiztuen murriztapen-iragazkira¹⁰.

3.4. Wikidatetik datuak eskatzea

Wikidatetik datuak eskatzeko Wikidata Query Service erabili da, bere zerbitzu ofiziala¹¹. Bertan, oinarrizko bilaketak egin dira entziklopedia bakoitzaren IDa erabilita. Entziklopedia horiek Wikidatan duten presentziagatik hautatu dira, alderaketak egiteko aukera hobea ematen dutela ikusita. Sailkapen bat egin ostean, bost izan dira *Lur Entziklopediarekin* batera hautatakoak alderaketak egiteko: *Encyclopaedia Britannica Online*, *Gran Enciclopedia Catalana* (GEC), *Errusiako Entziklopedia Handia* (GRE), *De Agostini* eta *Store Norske Leksikon*. *Larousse* alde batera utzi da, paperean dituen 90.000 sarreretatik 5.141 baino ez daudelako Wikidatan (% 6), eta emaitzak distortsiona ditzake. Entziklopedia guztiak europarrak dira, baina hizkuntza ezberdina dute oinarri: ingelesa, katalana, italiara, errusiera eta norvegiera. Bost entziklopedia horiek dira biografia gehien dutenak Wikidatarekin lotuta (ikus 1. taula).

Ondoren, pertsona horien demografiari buruz gehiago jakiteko galderak egin ditugu, generoa, jaioterria edo ogibidea kasu. Galderen helburua izan da zer pertsona agertzen diren kontsultatzea. Jaioterriak herritartasuna zehazten ez duela jakinda, hainbat arrazoi praktikok jaioterria hobestera eraman gaituzte. Lehenengo arrazoia da jaioterria bakarra dela, baina herritartasuna bat baino gehiago izan daitekeela, baita herriz aldatu gabe ere; adibidez, pertsona berberak izan dezake Errusiar Inperioko, SESBeko eta Ukrainako herritartasuna, inoiz bere herritik atera ez bada ere. Bigarren arrazoia da Euskal Herrian eta Katalunian jaiotakoan herritartasuna Espainia edo Frantzia gisa agertzen dela kasu gehienetan, eta finean hori iragazi behar genuen *Lur* eta GEC entziklopedien kasuan. Hirugarren arrazoia da herritartasun bat baino gehiago dituzten pertsonak ehunekoak aldatzen dituztela, eta hori bereziki nabarmena dela errusiarren kasuan, Wikidatan ohikoa baita izan duten herritartasun guztiak aipatzea. Azkenik, herritartasuna identitatearekin lotuta dago, eta pertsona baten nazio-identitatea ezin dugu erraz ezagutu. Jaioterria, beraz, fidagarriagoa da bilaketa egonkor eta alderagarri bat egiteko.

Azkenik, LHE beste entziklopedia batzuekin alderatzeko hautua egin dugu. Horretarako, Wikidatan biografia kopururik handiena zeintzuek duten bilatu dugu, 1. taulan agertzen den emaitzarekin.

10. Wikidatak baimentzen du propietate batek elementu bat baino gehiago izatea, baina ez da gomendagarria kanpo-erreferentzietan, non lotura unibokoa hobesten den. Horregatik, salbuespenak zeintzuk diren adierazi behar da.

11. Wikidatan eskaerak edo queryak egiteko sistemaren helbidea honakoa da: <https://query.wikidata.org/>

1. taula. Alderatu diren sei entziklopedietako biografia kopurua, Wikidatako erregistroetan.

Entziklopedia	Biografia kopurua*	Wikidata bilaketa
Encyclopaedia Britannica Online	50.479	https://w.wiki/4qAk
Gran Enciclopedia Catalana	32.610	https://w.wiki/4qA\$
Errusiako Entziklopedia Handia	23.047	https://w.wiki/4qAx
Store Norske Leksikon	38.100	https://w.wiki/4qAv
De Agostini	19.118	https://w.wiki/4qAt
Lur Hiztegi Entziklopedikoa	13.069	https://w.wiki/4qAs

* Pertsona batzuek erregistro bat baino gehiago dituzte bilaketatan. Horregatik zenbakien arteko desberdintasunak egon daitezke. Gure lan honetan ID ezberdina duten pertsonak hartu ditugu, eta ez sarrera kopurua, duplikatuak baitaude.

4. Emaitzak

4.1. Lur Entziklopediaren edukiaren analisisia

Lur hiztegi entziklopediko bat da. Zentzu horretan, elkarrekin agertzen dira hiztegi bateko elementuak eta entziklopedia batekoak. Sarean eskuragarri dagoen bertsioak 61.322 sarrera ditu indexatuta, nahiz eta ahotsak gehiago diren, sarrera batzuen barruan esanahi bat baino gehiago sartzen diren. Era berean, sarean akatsa ematen duten orriak ere badaudela aipatu dugu, eta 62.653 dira guztira lortu direnak. 2.256 sarrera aditz gisa markatuta agertzen dira, hiztegi-eduki hutsarekin. Beste 1.393 adizlagunak direla markatzen du. Gainontzeko edukiak pertsona, leku eta izen edo izenondo bezala agertzen diren kontzeptuak dira. Lan honetan biografietan baino ez gara zentratuko.

Lehen aipatu den metodologiari jarraituz, 13.069 biografia identifikatzea lortu da, eduki entziklopedikoa izan daitekeenaren % 20,86, *Encyclopaedia Britannica* duen % 14 (Kister, 1994) eta % 17 (Sader & Lewis, 1995) artean baino gehiago. Atal honetan biografia horien analisisia egiten saiatuko gara, ditugun datuak baliatuz.

4.1.1. Gizon-emakume ratioa

Gizon-emakume ratioa izan ohi da giza indizeen artean gehien aipatzen dena (Reagle & Rhue, 2011; Konieczny & Klein, 2018; Causevic et al., 2020), eta ebazten errazenetako bat. Euskarazko Wikipediak Genero Orekari buruzko orrialde berezi bat du, gaia sakonean azalduta (Euskarazko Wikipedia, 2021). Lerro hauek idazterakoan, euskarazko Wikipediak 11.000 emakume baino gehiago ditu, biografia guztien % 22¹². LHEn 13.073 biografia daude guztira, horietatik 1.115 emakumezko, % 8,53. Genero-dibertsitateari erreparatuta, hiru biografia daude gizon-emakume dualitatearen barnean sartzen ez direnak, horietako bat Katalina Erauso euskal herritarra¹³.


12. Kontsulta honen emaitzak honako helbidean ikus daitezke: <https://w.wiki/4hFz>

13. Kontsulta honen emaitzak honako helbidean ikus daitezke: <https://w.wiki/4fFY>

4.1.2. Biografiak denboran


Noiz bizi izan ziren LHEn aurki ditzakegun pertsonak? LHE 1990eko hamarkadan inprimatu eta 2000koaren hasieran hainbat artikulu gaurkotu zirela kontuan hartuta, litekeena da biografia gutxi egotea 1970 baino beranduago jaiotakoak. Bestalde, Bretchen esaldia hartuta, liburuan errege-izenak baizik ez badira ageri, litekeena da Erdi Aroko eta Aro Modernoko biografiak izatea nagusi.

Haien jaiotza-data zehatza ezagutzen ez ditugun 55 biografia kenduta, hiru urterik oparoenak 1924, 1925 eta 1926 dira. Hiruren artean 436 biografia daude, biografia guztien % 3,33. Jaiotza ezaguna dutenen artean, 253 gure aroaren aurretik jaio ziren. 1. urtetik aurrera jaio zirenen artean, honako grafikoa eskuratzen dugu:



2. irudia. LHEko biografien jaiotza-datarekin egindako grafikoa. Argi ikusten denez, biografien une gorena XX. mendearen hasieran jaiotakoaren artean dago. Grafikoetako lehenengo urteetan dauden pikoetako asko ziurgabetasunagatik sortzen dira, data ezezagunean jaiotakoei mende-erdian puntu bat esleitzen zaielako.

Gure aroan mendeen arabera ere antola ditzakegu biografia hauek, eta sexu/generoaren arabera bana ditzakegu¹⁴:



3. irudia. Gizonezkoak eta emakumezkoak jaiotza-mendearen arabera LHEn. Emakumezkoen kopururik handiena XX. mendekoa da.


14. Kontsulta honen emaitzak honako helbidean ikus daitezke: <https://w.wiki/4hHE>

Jaiotza-data ezaguna dutenen artean, erdiak baino gehiago 1894 baino beranduago jaio dira. Emakumezkoen artean data hori askoz beranduago lortzen dugu: LHEn dauden emakumeen erdiak baino gehiago 1924 baino beranduago jaio dira. Beste modu batera esanda, 1960ko hamarkadatik aurrera ezagun egin diren emakumeek osatzen dituzte agertzen diren biografien erdiak. Gizonezkoen artean data hori atzerago dago: gizonezkoen erdiak 1889 baino beranduago jaio ziren.

4.1.3. Biografiak espazioan

Entziklopedia klasikoetan, goian aipatu dugun bezala, norberaren kulturari lotutako gaiak ohikoagoak izaten dira, aldarri unibertsalista egon edo ez. Hala ere, kultura dominanteak ezarri ohi ditu nortzuk agertu behar diren entziklopedia orotan. LHEko biografia guztiak azter daitezke, espazioan kokatuz, euskal herritarrek duten presentzia zein den kuantifikatuz. Nazionalitatea kontzeptu konplexua da, eta horregatik jaioterria hartu dugu analisi honen lehen geltoki gisa, ulertuz euskal herritar diren guztiak ez direla bertan jaio eta bertan jaio diren guztiak ez direla euskal herritar aldarrikatzen.

13.073 biografiatik 2.191 Euskal Herrian jaiotakoak dira. Ziurrenik, gehiago izango dira, Erdi Aroko pertsona batzuen jaiotekua ez dugulako ezagutzen, nahiz eta jakin Euskal Herrian jaio zirela. Hau da, LHEn dauden biografien % 16,76, gutxienez, bertan jaio da¹⁵. Horietatik 139 Araban jaio ziren, 533 Bizkaian, 899 Gipuzkoan, 149 Lapurdin, 67 Nafarroa Beherean, 382 Nafarroa Garaian eta 23 Zuberoan. 230 donostiar daude, 226 bilbotar eta 101 iruindar.




4. irudia. LHEn agertzen diren biografien nazionalitatea, euskal herritarrek kenduta. Frantzia da biografia gehien eman duen herrialdea. Wikidata Query Servicerekin egindako grafikoa.

¹⁵. Kontsulta honen emaitzak honako helbidean ikus daitezke: <https://w.wiki/4fwd>

Hala ere, Donostia ez da biografia gehien eskaintzen duen hiria, Paris baizik, 334 biografiarekin. Horren inguruan egin dugu hurrengo galdera: zeintzuk dira Euskal Herrian jaio ez direnen herrialdeak? Ordezkaritzarik handiena duten herrialdeak honakoak dira: Frantzia (1.561), AEB (1.236), Espainia (1.191), Italia (896) eta Erresuma Batua (870)¹⁶.

Jaioterriaren arabera mapan sakondu daiteke, argiago ikusteko zein den biografien jatorria. Era berean, gizon eta emakume artean zatitu dugu mapa. Aukera dago mapa hau interaktiboki ikusteko¹⁷:



5. irudia. LHEko biografiak jaioterriaren eta sexu/generoaren arabera. Puntu laranja emakumezkoak adierazten dituzte, puntu urdinek gizonezkoak. Herri batean pertsona bat baino gehiago jaio badira, puntu bakarrek adierazten da. Wikidata Query Servicerekin egindako mapa.

4.1.4. Ogibideak

Aztertu nahi dugun hurrengo atala LHEn dauden ogibideak dira. Argitu beharreko kontu bat dago: pertsona batek lanbide bat baino gehiago izan ditzake Wikidatan, eta hori bereziki nabarmena da idazleen kasuan, beste ogibide nagusi bat izan arren, liburu bat idatzi duen oro idazletzat hartzen delako. Zientzialari asko idazle eta unibertsitateko irakasle dira aldi berean. Eta agintari asko militar izan daitezke aldi berean. Horregatik, ez da posible ehunekoak erakustea modu argi batean.

16. Kontsulta honen emaitzak honako helbidean ikus daitezke: <https://w.wiki/4hZ2>

17. Kontsulta honen emaitzak honako helbidean ikus daitezke: <https://w.wiki/4hZA>


Euskal Herrian jaiotakoaren artean ere lanbiderik ohikoena idazlearena da (771), 359 politikari daude, 154 margolari, 140 apaiz, 131 poeta, 116 musikagile eta 101 bertsolari. Euskal Herriko emakumezkoen artean 46 idazle, 30 politikari, 14 margolari, 12 aktore eta 12 kazetari daude.

4.1.5. Bizitza eta heriotza

Heriotza aztertzea ere posible da. Biografia guztien artean, gutxienez 10.624 hilda daude. Gerta liteke gehiago izatea, biografia gutxi batzuen datu biografikoak falta direlako, eta agian haien heriotza ez delako Wikidatan jaso. Horrek esan nahi du biografien % 81,27 hilik daudela jada, eta gehienez ere % 18,73 daudela bizirik.

Heriotza gehien izan zuten hamar urteak 1990eko hamarkadako guztiak dira (1991 eta 1997an 137 hildako). Heriotza-urteari dagokionez, hau da lortzen dugun grafikoa.

Heriotzak urtearen arabera



7. irudia. Heriotza-urteetan ikus daiteke LHE argitaratzen zen garaian hildakoak direla kopururik handiena.

4.2. Alderaketa beste entziklopedia batzuekin

Aurretik lortutako emaitzen esangura ulertzeko, interesgarri deritzogu beste entziklopedia batzuekin alderaketa egiteari, jakiteko ea lortutako emaitzek esanguraren bat duten entziklopediaren helburuarekin.

4.2.1. Gizon-emakume ratioa

Entziklopedia tradizionaletan nabarmen da gizon gehiago izan direla emakumezko baino, goian aipatu den bezala. Ratio horiek alderatu nahi ditugu, berriro ere Wikidata erabilia (2. taula).

2. taula. Wikidatan dauden biografiak aztertu diren entziklopedietan, emakumezko kopurua eta ehunekoa. Egindako Wikidatako eskaera ere ikus daiteke azken zutabearen.

Entziklopedia	Biografiak guztira	Emakumeak*	% Emakumeak	Wikidatako eskaera
Britannica	50.479	5.999	% 11,88	https://w.wiki/4dtr
GEC	32.610	2.498	% 7,66	https://w.wiki/4du7
GRE	23.047	1.684	% 7,31	https://w.wiki/4du5
Norske	38.100	5.519	% 14,48	https://w.wiki/4aSK
De Agostini	19.118	1.195	% 6,25	https://w.wiki/4gYX
Lur	13.069	1.115	% 8,53	https://w.wiki/4fFY

* Emakumeen kopuruak emakume transgeneroak hartzen ditu barnean.

4.2.2. Biografiak denboran

LHErekin egin dugun bezala, entziklopedia bakoitzaren batez besteko jaiotza-urtea kalkula dezakegu, bertan eskuragarri dauden biografien garaiaren inguruko pista eman ahal digun datua (3. taula).

3. taula. Entziklopedia bakoitzaren biografien jaiotza-urtea, guztira eta sexuaren arabera.

Entziklopedia	Jaiotzen batezbestekoa	Gizonen batezbestekoa	Emakumeen batezbestekoa
Britannica	1879	1871	1914
GEC	1866	1862	1914
GRE	1881	1877	1921
Norske	1904	1898	1939
De Agostini	1827	1823	1881
Lur	1894	1889	1924

4.2.3. Biografiak espazioan

Entziklopedia bakoitzean agertzen diren pertsonak non jaio diren begiratu da, eta jaioterri hori gaur egungo estatuaren edo lurraldearen arabera antolatu (4. taula). Lehen aipatu den bezala, herritartasunak arazoak ekarriko lituzke Euskal Herriko eta Kataluniako bi entziklopediak alderatzeko, haien herrialdeetako biografia gehienek herritartasuna Espainia eta Frantzia delako. Hala ere, badaude gaur egun beste herrialde batzuetan jaiotakoak, ehuneko hori desitxuratu dezaketenak, bereziki kontuan hartzen baditugu Antzinako Erroman zein Aita Santuen Lurraldean jaiotako pertsonaia historiko garrantzitsu guztiak. Behinola Errusiar Inperioaren parte edo Britainiar Inperioaren parte izandako lurraldeetan jaiotako errusiarrek eta britainiarrek ez dira, era berean, gaur egungo Errusiako eta Erresuma Batuko zerrendetan agertuko.

4. taula. Entziklopedia bakoitzaren herrialdean jaiok, kopuru absolutuan eta ehunekoan.

Entziklopedia	Biografiak guztira	Bertan jaiok	Bertan jaiok ehunekoa	Wikidatoko eskaera
Britannica*	50.479	5.991 (EB) + 12.881 (AEB)	% 11,87 (EB) + % 25,51 (AEB)	https://w.wiki/4gYZ
GEC	32.610	8.681	% 26,62	https://w.wiki/4dv9
GRE**	23.047	6.022	% 26,13	https://w.wiki/4gYb
Norske	38.100	8.117	% 21,30	https://w.wiki/4gYc
De Agostini	19.118	5.321	% 27,83	https://w.wiki/4gYg
Lur	13.069	2.191	% 16,76	https://w.wiki/4fwd

* Erresuma Batua osatzen duten lurralde guztiak hartu dira kontuan, baina ez Commonwealtha. Era berean, *Britannicak* Ameriketako Estatu Batuetako bertsioa ere badu eta, horregatik, bi kopuruak eskaintzen ditugu.

** Gaur egun Errusiar Federazioan dauden herrietan jaiotakoak kalkulatu dira.


4.2.4. Entziklopedien antzekotasunak eta elementu bakartiak

Venn diagramak sortzeko erabiltzen den bioinformatikako tresna batekin¹⁹, sei entziklopedietako elementuen zerranda igo da, alderaketa egiteko. Tresna horrek komunean zer duten esaten du, eta bakoitzak dituen elementu bakartiak ere identifikatzeko balio du. Sei elementuko Venn diagrama batean jasota, honakoa da emaitza (8. irudia).


Elementu guztiak batuta 112.071 item ezberdin daude, eta elkarrekin guztiak erakusten dituzten biografiak 1.859 baino ez dira. Hau da, entziklopedia hauetan guztietan agertzen diren biografiak elkarrekin dituztenen halako % 1,65 dira. Elementu bakartiak ere kalkulatu dira diagrama honen bidez. *Britannicak* 26.237 ditu (% 52); *GECek* 15.282 (% 46,88); *GREk* 10.353 (% 44,95); *Norskek* 19.964 (% 52,85); *De Agostinik* 7.443 (% 38,99); *Lur Hiztegi Entziklopedikoak*, azkenik, 3.320, bere biografia guztien % 25,3.

Venn diagrama aztertuz gero, ikus daiteke *De Agostini* entziklopedia dela beste guztiekin komunean gutxien duena. Hau da, bosteko taldeak eginez, *De Agostinik* ez ditu beste bost entziklopedietan dauden 1.958 elementu. Horren arrazoia ez dugu ezagutzen, baina aukeretako bat datu guztiak Wikidatan ez egotea denez, artikulua unibertsalen analisirako kanpoan utziko dugu. Bost elementurekin egindako Venn diagrama berria honakoa da (9. irudia).

19. <<http://www.interactivenn.net/>> (Heberle et al., 2015) eta bioinformatikan erabiltzen den <<https://bioinformatics.psb.ugent.be/webtools/Venn/>> izan dira erabilitako tresnak. Azken horren emaitza InkScape erabilia moldatu da.



8. irudia. Entziklopedia bakoitzak dituen elementuen alderaketa, Venn diagrama baten bidez. Kolore bakoitzak entziklopedia bat adierazten du. Zenbakiak elkarren artean dituzten loturak. Kolore bakar batez estalitako zenbakiak elementu bakartiak adierazten dituzte.



9. irudia. De Agostini kendu ostean ariketa berberak eskaintzen digun Venn diagrama. Koloreen arteko elkarketak erakusten du komunean zenbat biografia dituzten entziklopedia horiek. 3.847 biografia dituzte komunean.

5. taula. Elementu bakartiak entziklopedia bakoitzean, eta guztiarekiko horrek adierazten duen ehunekoa.

Entziklopedia	Biografiak guztira	Elementu bakartiak	Bakartien ehunekoa
Britannica	50.479	27.977	% 55,45
GEC	32.610	16.163	% 49,58
GRE	23.047	10.723	% 46,56
Norske	38.100	20.428	% 54,07
Lur	13.069	3.400	% 26,01

Nortzuk dira bost entziklopedietan agertzen diren 3.847 pertsona horiek, % 3,68 hori? Lehenengo eta behin pertsona horien sexu/generoari begiratuko diogu: 3.648 gizonezkoak dira (% 94,83), eta 199 emakumezkoak (% 5,17). Jaioterria ezagutzen dugun kasuetan, estaturik ohikoenak²⁰ Frantzia (576; % 14,37), Ameriketako Estatu Batuak (468; % 11,68), Erresuma Batua (386; % 9,63), Italia (381; % 9,51) eta Alemania (339; % 8,46) dira. AEB kenduta, Europatik kanpoko lehen herrialdea Japonia da, 34 biografiarekin. Afrikako lehenengo herrialdea Egipto da, 32.a zerrenda, 21 biografiarekin.

Bost entziklopedia horietan dagoen pertsonarik gazteena 1976an jaio zen, Ronaldo futbolaria. Jaiotza ezaguna dutenen erdiak 1872 baino beranduago jaio ziren. Emakumeen kasuan data hori 1909 da, hortik aurrera jaio dira data ezaguna dutenen erdiak. Gizonezkoak soilik hartuta erdiak baino gehiago 1869 baino beranduago jaio dira. 3.546 pertsona, gutxienez, hil dira jada, hau da, deskribatutakoen % 92,17, gutxienez, hilda daude.

Biografia horien jarduerari buruz ere galde dakiok Wikidatari²¹. Pertsona batek jarduera bat baino gehiago izango dituela kontuan hartu behar da, hala ere. Ohikoenak idazle (1.372), politikari (853; bertan sartzen dira monarkiako kideak ere), unibertsitateko irakasle (759), filosofo (452) eta fisikari (365) dira. Emakumezkoen artean idazleak dira ohikoenak (89), baina aktoreak (37) eta politikariak (32) eta abeslariak (28) ere agertzen dira.

Amaitzeko, bost entziklopedia horietan agertzen diren euskal herritarrei buruzko aipamen labur bat egin nahi dugu. Hauek dira, izena alfabetikoki ordenatuta: Cristobal Balentziaga, Dolores Ibarruri, Ignacio Loiolakoa, Ignazio Zuloaga, Jean Borotra, Juan Sebastian Elkano, Maurice Ravel, Miguel Indurain, Miguel Servet²², Miguel Unamuno, Pablo Sarasate, Pío Baroja, Rafael Moneo, René Cassin, Santiago Ramón y Cajal eta Yehuda Halevi. Munduari lehen bira eman zion Elkano, adibidez, ez da agertzen *De Agostini* entziklopedian, nahiz eta haren izena aipatzen den Magallaesi buruzko sarreran (Agostini, n.d.).

20. Kontsulta honen emaitzak honako helbidean ikus daitezke: <https://w.wiki/4gtW>

21. <https://w.wiki/4gtE>

22. Iturri batzuen arabera Tuteran jaio zen.

5. Ondorioak

Lur Hiztegi Entziklopedikoaren helburua nazioarteko gainontzeko entziklopedien parekoa euskaraz eskaintzea zen, «euskaraz mundu ezaguera orokor batekin, alorkako ezaguera ez den batekin, modu global batez egiten den lehenengo topaketa» (Zabaleta, 1992). Lan honetan promesa hori aztertu dugu, eremu jakin eta mugatu baina esanguratsu batean: biografiena.

Aztertu dugun lehen dimentsioa sexu/genero aldea izan da. Gainontzeko entziklopedia idatzietan ikusten den egoera berbera dugu LHEn, gutxi gorabehera hamar gizon daude emakume bakoitzeko. Faktore honetan ez da aldentzen eta ez da berritzailea. *Encyclopaedia Britannica* laudatua izan da aro eta herrialde guztietako emakumeen inguruko artikulua izateagatik (Sader & Lewis, 1995), eta Mendebaldean saltzen diren entziklopedien artean emakumeen biografietan orekarik handiena duena dela esan da. Hala ere, datuek erakusten dute norvegiarazko entziklopediak emaitza hobekak lortzen dituela indize honetan. Eta, edonola ere, euskarazko Wikipediak *Britannica* bikoizten du emakumeen biografiei dagokienez. LHEk emaitza okerragoa eskuratzen du britainiarrek eta norvegiarrek baino, baina alderatu diren beste hirurak baino hobea da indize honetan.

Denboran aztertuta, ikusten da XX. mendeko biografiek pisu handia dutela, baina *De Agostini* izan ezik, askoz biografia zaharragoak dituen, esparru berebean mugitzen da. Besteetan bezala, emakumezkoen biografiak nabarmen gazteagoak dira gizonezkoenak baino. Eta denboran aztertuta ere, nabarmena da euskal kulturako hainbat pertsona sartzeak entziklopedia *gaztetzen* duela.

Espazioan kokatuz ikusten dugu alderik handiena. *Encyclopaedia Britannica* bertakotasuna aztertzeak akaso ez du besteetan bezainbat garrantzi, mundu ingeles-hiztuna delako entziklopediaren helburua, eta ez soilik britainiarra. Bere bi merkatuak diren AEB eta Erresuma Batuko biografiak gehituta, ehunekorik handiena izango luke, baina biografia horietako asko besteetan ere agertzen direla kontuan izan behar dugu. Gainontzeko entziklopediek askoz eduki lokal gehiago dute LHEk baino. Erraz azal daiteke, pentsatuz gero euskaldunak ere populazio txikiagoa direla eta, beraz, proportzioz gutxiago izan beharko lirakeela. Nabarmena da oreka bilatzeko helburua, euskal herritar kopuru nabarmen bat sartuta, baina nazioarteko ikuspegia gailenduz. Arestian aipatu dugu Yankushkik planteatu zuela euren Yiddish entziklopedia ez zela unibertsaltzat hartuko % 15 baino gehiago juduak baziren: errealitateak erakusten du entziklopedia unibertsal gehienak esparru horretatik gora daudela; LHE da, bide batez, gehien gerturatzen dena zenbaki horretara. Hau da, hizkuntza eta kultura ez-hegemonikoek euren unibertsaltasuna demostratu behar dute, euren buruaren errepresentazioa murriztuz, eta hizkuntza hegemonikoek, aldiz, kopuru handiagoa izan dezakete, euren unibertsaltasuna ezbaian jarri gabe. Bestetik, arreta eman digu Euskal Herritik kanpo gehiengoak espainiarrak ez izateak, baizik eta frantsesak, beste entziklopediatan gertatzen den bezala.

Azkenik, ogibideetan jarri nahi dugu arreta. Artikulu hau hasi dugu Brechten bertsoekin eta bertan galdetzen zuen ea *Zesarrek galoak menderatu zituenean ez ote zegoen berarekin sukaldari bat bederen*. LHEk arreta berezia jarri du ogibide

batzuetan, eta euskaldunen artean sukaldariek duten pisua ere ikus daiteke bilaketetan. Hala ere, ohikoa den bezala, errege eta antzinaroko gobernariak tarte berezia izaten jarraitzen dute. Horrela, berezitasun batzuk baditu ere, LHE gainontzeko entziklopedien antzekoa da.

Bada fenomeno harrigarri bat, ustezko unibertsaltasun hori zalantzan jar dezakeena. Lan honetan aztertu ditugun entziklopedia guztietako biografiak gehituta, 112.071 banako aurki daitezke. Pentsa liteke, bakoitzaren nazioko ehuneko horiek kenduta, entziklopedia gehienetan pertsona berberak aurkituko genituzkeela. Hala ere, lehen esan dugun bezala, elementu komunak 1.859 baino ez dira, guztien % 1,65. Horren azalpena egon liteke LHEn tamaina txikiagoan. Baina, hala ere, LHEn agertzen diren 10.878 ez-euskalheritarren artean % 17 baino ez dira horiek. Zenbaki hori oso txikia da, intuizioaren kontrakoa, eta Ecoren tesia indartzen du: «Errepresentazio entziklopediko bat ez da inoiz globala, beti da lokala, eta testuinguru eta gertakari zehatzen arabera sortzen da» (Eco, 2007: 62). Perspektibaren metaforarekin jarraituz, hizkuntza bakoitzean gehien-dakien-entziklopedistak unibertsoa behatu du, baina ez digu laburpen berbera erakutsi.

LHEn helburua euskararen normalizazioan aurrerapauso handia izango zen erreferentzia-lana egitea zen. Haritzelharren hitzaurretik hasita (1991), euskararentzat beste urrats logiko bat baino ez da; Dubnowekin bat, euskarazko entziklopedia unibertsal bat egiteko unea zen, eta egin zuten. Yankushkirekin bat, unibertsal homologagarria izateko norberaren errepresentazioa mugatu zuten, besteak baino gehiago. Normalizazioa, diglosiarekin amaitzea eta etorkizunean euskaraz arituko ziren langile berriei ezagutza tekniko hedatzeko helburua zuten (Zabaleta, 1992). Demografiaren azterketa honek erakusten du helburu hori betetzeko erabakiak hartu zituztela, euskarazko lehenengo entziklopedia unibertsala sortuz. Gutxienez, besteak bezain unibertsal.

6. Lan honen mugak

Lan honek baditu muga ezagun batzuk. Alde batetik, baliteke oraindik lotu gabeko biografia batzuk egotea *Lur Hiztegi Entziklopedikoan*. Egindako bilaketetan aurkitutako guztiak gehitu badira ere, gutxi batzuk egon daitezke galduta. Horrek aldaketa txikiak eragingo lituzke estatistiketan, nahiz eta ez dugun aurreikusten dezimalak baino gehiago mugitzea.

Aztertutako biografia-lagin guztiak bat datoz Wikidata eta *Lur Hiztegi Entziklopedikoaren* artean. Horrek ez du esan nahi 13.073 horiek zuzenki loturik daudenik. Izen batzuk ez dira aurkitu, eta elementu berriak sortu dira, baina baliteke Wikidatan beste izen batekin aurkitu ahal izatea pertsona hori. Kasu horiek arraroak direla uste dugu, eta gutxiegi izango liriteke emaitza aldatzeko.

Bestetik, ez dakigu ziurtasunez alderatzeko erabili diren beste entziklopedien egoera ere berbera ote den. Datuen osotasunagatik eta erreferentzialtasunagatik aukeratu dira, eta uste dugu, guk igotako datuekin bezala, akatsak oso urriak izango direla.

7. Bibliografia

- Agirretzabaltegi, P. (1992): «Eusenor: Euskal Entziklopedia Orokorra. Kultur eta argitalpen-proiektua», *Jakin*, 72.
- Agostini, R.D. (d.g.): «Magellano, Ferdinando su Enciclopedia», in *Sapere.it* (2022-01-15ean berreskuratua: <https://www.sapere.it/enciclopedia/Magellano%2C+Ferdinando.html>).
- Brecht, B. (1939): *Svendborger Gedichte*, Suhrkamp.
- Brenner, M. (1998): *The renaissance of Jewish culture in Weimar Germany*, Yale University Press.
- Causevic, A.; Philip, K.; Zwick-Maitreyi, M.; Lewis, P.H.; Bouterse, S. & Sengupta, A. (2020): «Centering knowledge from the margins: Our embodied practices of epistemic resistance and revolution», *International Feminist Journal of Politics*, 22(1), 6-25. <https://doi.org/10.1080/14616742.2019.1701515>
- Dittus, M. & Graham, M. (2019): «Mapping Wikipedia's geolinguistic contours», *Digital Culture & Society*, 5(1), 147-164. <https://doi.org/10.14361/dcs-2019-0109>
- Dubnow, S. (1931): «Fun troyrn tsu virklekhkayt: A baratung vegn a yidisher entsiklopedye», *Litera-Rishe Bleter*, 157-160.
- Eco, U. (2007): *Dall'albero al labirinto: Studi storici sul segno e l'interpretazione*, La Nave di Teseo Editore spa.
- Etxebeste Aduriz, E. (2014): «Dideroten Entziklopedia», *Elhuyar*. http://aldizkaria.elhuyar.eus/site_media/pdf/ELH306-020.pdf
- Euskarazko Wikipedia (2020): «Gran enciclopedia de navarra», in *Wikipedia*. https://eu.wikipedia.org/wiki/Gran_Enciclopedia_de_Navarra
- , (2021): «Wikipedia: Genero Oreka», in *Wikipedia, entziklopedia askea*. https://eu.wikipedia.org/wiki/Wikipedia:Genero_oreka
- Ford, H. & Graham, M. (2020): *Semantic Cities: Coded Geopolitics and the rise of the semantic web*. https://papers.ssrn.com/sol3/papers.cfm?abstract_id=2682459
- Foucault, M. (1980): *Power/knowledge: Selected interviews and other writings, 1972-1977*, Vintage.
- Franklin-Brown, M. (2012): *Reading the World: Encyclopedic writing in the scholastic age*, University of Chicago Press.
- Giles (2005): *Internet encyclopaedias go head to head*, *Nature*. <https://www.nature.com/articles/438900a>
- Goetz, P.W. (1991): *The New Encyclopaedia Britannica*, Encyclopaedia Britannica Inc., Chicago.
- González González, E. (2013): «Vives, Juan Luis, L'insegnamento delle discipline», *Nova Tellus*, 31(1), 207-211.
- Graham, M. & Dittus, M. (2022): *Geographies of digital exclusion: Data power and inequality*, Radical Geography.
- Graham, M. & Sengupta, A. (2017): We're all connected now, so why is the internet so white and western? - ORA - Oxford University Research Archive. *Guardian*.
- Haritschelhar, J. (1991): «Aitzinsolasa», in *Lur Hiztegi Entziklopedikoa*, Lur.
- Heberle, H.; Meirelles, G.V.; da Silva, F.R.; Telles, G.P. & Minghim, R. (2015): «InteractiVenn: A web-based tool for the analysis of sets through Venn diagrams», *BMC Bioinformatics*, 16(1). <https://doi.org/10.1186/s12859-015-0611-3>
- Humaniki (2021): Wikimedia Diversity Dashboard Tool. <https://whgi.wmflabs.org/>
- Ingelesezo Wikipedia (2021): «Encyclopedia», in *Wikipedia*. <https://en.wikipedia.org/wiki/Encyclopedia>

- Irekia (2011): «Irekia - 11.000 sarrera berri Wikipedia entziklopedia digitalaren euskarazko edizioan», Irekia. <https://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/8655-000-sarrera-berri-wikipedia-entziklopedia-digitalaren-euskarazko-edizioan?t=1>
- Kister, K.F. (1994): *Kister's best encyclopedias: A comparative guide to general and specialized encyclopedias*, Greenwood.
- Knörr, H.; Sarasola, I. & Salaburu, P. (1991): «Atarian», in *Lur Hiztegi Entziklopedikoa*.
- Konieczny, P. & Klein, M. (2018): «Gender gap through time and space: A journey through Wikipedia biographies via the Wikidata Human Gender Indicator», *New Media & Society*, 20(12), 4.608-4.633. <https://doi.org/10.1177/1461444818779080>
- Kumar, S. (2017): «A river by any other name: Ganga/Ganges and the postcolonial politics of knowledge on Wikipedia», *Information, Communication & Society*, 20(6), 809-824. <https://doi.org/10.1080/1369118x.2017.1293709>
- Lam, S. (Tony) K.; Uduwage, A.; Dong, Z.; Sen, S.; Musicant, D.R.; Terveen, L. & Riedl, J. (2011): «WP: clubhouse?», *Proceedings of the 7th International Symposium on Wikis and Open Collaboration - WikiSym '11*. <http://dx.doi.org/10.1145/2038558.2038560>
- Lasa Zuzuarregi, G. (d.g.): EDITORIAL AUÑAMENDI argitaldarien soslaia, *MHLI*.
- Loveland, J. (2012): «Why encyclopedias got bigger... And smaller», *Information & Culture: A Journal of History*, 47(2), 233-254. <https://doi.org/10.1353/lac.2012.0012>
- Luyt, B. (2018): «Representing African cities in Wikipedia», *Information Development*, 35(3), 388-396. <https://doi.org/10.1177/0266666918756171>
- Lynch, J. (2016): *You could look it up: The reference shelf from ancient babylon to wikipedia*, Bloomsbury Press.
- Mamadouh, V. (2019): «Writing the World in 301 Languages: A Political Geography of the Online Encyclopedia Wikipedia», in *Handbook of the Changing World Language Map*, Springer International Publishing, 3.801-3.824. http://dx.doi.org/10.1007/978-3-030-02438-3_199
- Mesgari, M.; Okoli, C.; Mehdi, M.; Nielsen, F.Å. & Lanamäki, A. (2014): «“The sum of all human knowledge”: A systematic review of scholarly research on the content of Wikipedia», *Journal of the Association for Information Science and Technology*, 66(2), 219-245. <https://doi.org/10.1002/asi.23172>
- Miquel-Ribé, M. & Laniado, D. (2020): «The Wikipedia Diversity Observatory», *Proceedings of the 16th International Symposium on Open Collaboration*. <http://dx.doi.org/10.1145/3412569.3412866>
- Nagel, T. (1989): *The view from nowhere*, Oxford University Press.
- Pensa (2017): *The need to contribute to Wikipedia. The improbability of an African Wikipedia*, SUPSI Instory. <https://repository.supsi.ch/9181/>
- Reagle, J. & Rhue, L. (2011): «Gender bias in Wikipedia and Britannica», *International Journal of Communication*, 5(0), <https://doi.org/777>
- Sader, M. & Lewis, A. (1995): *Encyclopedias, Atlases and Dictionaries*, Libraries Unlimited.
- Schwartz, S.R. (1991): *The emergence of Jewish scholarship in America: The publication of the Jewish encyclopedia*, Hebrew Union College-Jewish Inst.
- Stange, M.Z.; Oyster, C.K. & Sloan, J.E. (2011): *Encyclopedia of Women in Today's World*, SAGE.
- Thomas, G. (1992): *A position to command respect: Women and the eleventh britannica*, Scarecrow Press, Metuchen, NJ .
- Trachtenberg, B. (2017): «Jewish universalism, the Yiddish encyclopedia, and the Nazi rise to power», in G. Estrakh & M. Krutikov (argtz.), *Yiddish in Weimar Berlin*, Routledge, 195-214. <http://dx.doi.org/10.4324/9781351193672-11>
- Tsentral-komitet fun Dubnov-Fond (1931): *Algemeyne entsiklopedye*.

- Vrandečić, D. (2012): «Wikidata», *Proceedings of the 21st International Conference Companion on World Wide Web - WWW '12 Companion*. <http://dx.doi.org/10.1145/2187980.2188242>
- Wikipedia editors (2022): *Talk:Ganges*, Wikipedia. https://en.wikipedia.org/wiki/Talk:Ganges#Requested_move_24_January_2022
- Zabaleta, J. (1991): «Irakurleari», in *Lur Hiztegi Entziklopedikoa*, Lur.
- , (1992): «Lur Hiztegi Entziklopedikoa», *Jakin*, 72.

